

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Liginaga-Astüe

Aurkibidea

Udalerria: Liginaga-Astüe

Sarrera



Zuberoako udalerria da, eta Basabürüako ibarraren ezker aldean dago. Liginaga eta Astüe herriak 1842. urtean batu ziren, udalerririk bakarrik osatzeko. Uhartzandi ibaia igarotzen da udalerritik, bertara isurtzen den Etxeberriko errekararekin batera. Mugakide dituen udalerririk: Atharratze-Sorholüze iparraldean, Aloze-Ziboze-Onizegaine ipar-mendebaldean, Montori ekialdean, Lexantzü-Zunharre mendebaldean eta Hauze eta Ligi-Atherei hegoaldean. Udalerririkaren ekonomia laborantzan eta abeltzaintzan oinarrituta dago.

- **Biztanleak:** 178
- **Euskaldunak:** %63,76

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Jean Arhex Arotxa (1932)



Liginaga herrikoa. Gurasoak bertakoak zituen: aita, Juhane Arhex eta ama Gaxusa Irigaray. Aita Arotxa etxean ezkondu zen; baserri ttipi bat zuten. Aita osagarri ttipikoa zen, eta gazterik zendu zen. Ama bost seme-alabarekin geratu zen: Jean zaharrena eta lau alaba. Bat lau urterekin zendu zen, eta besteak Marseilla hirira neskato joan ziren. Jean 14 urte arte ibili zen eskolan, eta gero amak Mauleko Champo eskola teknikora igorri zuen, 17 urtera arte. Ondotik Mitikileko arroztegian (Garaitegia izenekoa) egon zen lanean, hiru urtez. Ondotik etxean jarri zuen aroztegia. Zerbitzu militarra ere egin behar izan zuen: parachutistekin lehenengo, eta gero Marokon eta Aljerian (gerla zen orduan). Inseminadore artifiziala izateko formatu zen, Billères eta Rambouilet hirietan. Bi lanbide zituen, beraz: arrotza eta inseminadorea; urtean 600 bat etxetara joaten zen, inseminatzera, eta aroztegian langile bat hartu zuen. Jendeak etxearen izenetik deitzen du Jean: Arotxa. Familian, berriz, Juhane bezala da ezaguna.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com